



## **Euskal mendi lasterkarien emaitza historikoa taldekako eta banakako Espainiako Txapelketa guztiak irabazita Castellóko Mabo Borriol maratoian**

**2018ko ekainak 11.** **Aritz Egea** eta **Sandra Sevillano** proba irabazita, taldeka gizonezko nahiz emakumezkoen sailkapenak irabazita, eta juniorretan **Irati Zubizarretak** irabazita, emaitza historikoa bildu dute, bai, Euskal Mendizale Federazioaren izenean Euskal Selekzioa ordezkatu duten mendi lasterkariek Espainiako Txapelketetan, Castellóko Mabó Borriol mendi maratoian.

Titulua estreinatu dute Egeak, Sevillanok, eta baita emakumezkoen selekzio nagusiak ere. Gizonezkoenak urteetako nagusitasunari, eta kasik usadioari, segida eman dio, jada taldeka zazpigarrenez irabaziz. Espainiako Txapelketan protagonista nagusi izan dira euskal selekzioko ordezkariak.

### **GIZONEZKOAK**

- 1.Aritz Egea**
- 2.Miguel Caballero (La Sportiva)
- 3.Julen Martinez de Estibariz**
- 8.Iker Oliveri (2.beteranoa)**
- 23.Asier Larruzea**
- 69.Asier Alonso**

### **EMAKUMEZKOAK**

- 1.Sandra Sevillano**
- 2.Mercedes Pila (Lagartu Running)
- 3.Laia Cañés (Selecció Valenciana)
- 5.Nahia Quincoces**
- 7.Mayi Mujika**
- 16.Laida Elozegi**
- 17.Maria Zorroza**

### **TALDEKA**

- 1.Euskal Selekzioa**
- 2.Selección Andaluza
- 3.Selección Canaria

- 1.Euskal Selekzioa**
- 2.Selecció Valenciana
- 3.Selección Castilla y León

42 kilometro eta 2550 metroko desnibel positiboa zuen proba goizeko 7:00etan abiatu arren, bero kolpe handiak jo zituen lasterkariak 30. kilometro bueltatik aurrera, eta asko gogortu zuen horrek lehiaketa.

**Aritz Egea** hasieratik bukaerara nagusitu zen, Zegama-Aizkorriko esfortzua jada guztiz gaindituta zeukala erakutsiz. Denboraldi dotorea osatzen ari da, aurten ere, urretxuarra: 8. Zegaman, irabazle Reventon Trail eta Jurramendi Trail Montejurran, eta 3. Transvulcania maratoian. Hurrena, bere talde Salomon-en izenean, Mont Blanc Marathon proban parte hartuko du, uztailaren 1ean, Golden Trail Series zirkuituko bigarrena Zegamaren ostean.



**Julen Martinez de Estibarizek**, bere aldetik, boladan darrai: podiumera igo zen hirugarren amaituaz, Espainiako Kopan jokatu den azken proban (Tarragonan) egin zuen bezala. Sasoi puntuari eutsiz, Hermuakoak Livignoko Skyrunner World Series zirkuituko proban ere aurrean ibiltzea izango du helburu datorren asteburuan, ekainaren 16an.

**Sandra Sevillano** bilbotarrak, bere aldetik, azken kilometroetan ezarri zuen agintea. **Nahia Quincoces** mendexarra eta Mercedes Pila ekuatoriarra izan zituen aurretik lasterketa zati handi batean. Lan erditan Pilak minutu pasetxo ateratzen zion Quincocesi eta 4 minutu terdi inguru Sevillanori, eta hor indartu zen bilbotarra. Desabantaila urratu eta azken txanpa bikain batekin Quincoces lehendabizi, eta Pila ondoren, aurreratu, eta Espainiako Txapelketa irabazi zuen. Denboraldia berandu xamar aktibatu arren fresko eta indarrez dabil Sevillano, Espainiako Kopan ere isladatzen da hori: 2.a da sailkapen nagusian.

Quincoces hustu egin zen azken kilometroetan, eta podiumeko postuei eusterik lortu ez bazuen ere, tinko eutsi zion taldeka ahalik eta puntu gehien metatzeko, 5.amaituaz. Mayi Mujika ere postu bikainean amaitzeko gai izan zen, 7.a.

Juniorretan, berriz, Irati Zubizarreta Espainiako Txapeldun, ikusgarri, etorkizuna hemen da. Hirugarrenez jarraian irabazi du gazte mailako titulua beasaindarrak. 20 urte ditu eta iaz Munduko Skyrunning Txapelduna izan zen 18-20 urte tarteko kategorian.

Mutiletan Aitor Ajuria eta Jon Baleztenak lan txukuna burutu zuten oso, 9. Eta 18. Amaituaz ondoz ondo. Azpimarratzekoa Anartz Artola hernaniarraren 3.postua, CD Hernaniren izenean parte hartuz.

JUNIOR	
1.Daniel Sanz (Aragón) 2.Nicolas Molina (Andalucía) 3.Anartz Artola (CD Hernani) <b>9.Aitor Ajuria</b> <b>18.Jon Baleztena</b>	<b>1.Irati Zubizarreta</b> 2.Maria Beringues (Berguedá) 3.Yaiza Miñana (Aragón)





**MUNDUKO KOPA**

OIHANA AZKORBEBEITIA (Abadiño)  
NAHIA QUINCOSES (Mendexa)  
JOKIN LIZEAGA (Urneta, Zanpatuz ME)  
HASSAN AITCHAOU (Villabona, Idiazabal KE)  
IMANOL GOÑI (Ea, ArrolapeMT)

**MUNDUKO ULTRA TXAPELKETA**

LEIRE MARTINEZ (Portugaleta, Erlaitz ME)  
JAVI DOMINGUEZ (Gasteiz)  
JON ERDAIDE (Gorliz, Zanpatuz ME)  
RAUL MACARRO (Bilbo)

**ESPAINIAKO KOPA ETA TXAPELKETA**

AITZIBER IBARBIA (Zizurkil, Aizkardi ME)  
MAYI MUJIKA (Urretxu, Morkaiko ME)  
IBAN LETAMENDI (Oñati, Aloña Mendi KE)  
JULEN MARTINEZ DE ESTIBALIZ (Hermua)  
ASIER ALONSO (Oñati, Zortzietakoak KE)  
ANDER IÑARRA (Lezo)  
XABIER MACIAS (Iruña, Sestao Alpino)  
ASIER LARRUZEA (Güeñes, Azpigorri MK)



VASA

**Mendi Lasterketen Euskal Selektzioaren 2018ko EGUTEGIA**

**MARTXOA**

8 Espainiako Kopa Trail Cara los Tajos, Alhaurin el Grande, Malaga

**APIRILA**

15 Espainiako Kopa Garganta de los Infiernos, Jerte, Caceres

**MAIATZA**

6 Espainiako Kopa Panxampla, Alfara de Carles, Tarragona

20 Espainiako Txapelketa KB KV Arredondo, Cantabria

27 Munduko Kopa Zegama-Aizkorri

**EKAINA**

10 Espainiako Txapelketa Mabo, Borriol, Castellon

16 Munduko Kopa Livigno SkyMarathon (Italia)

23 Munduko Kopa Olympus Marathon, Dion (Grezia)

24 Espainiako Kopa Zumaia Flysch Trail

**UZTAILA**

1 Munduko Kopa Buff Epic trail, Barruera, Lleida

29 Munduko Kopa Comapedrosa Skyrace (Andorra)

**ABUZTUA**

5 Espainiako Kopa Vistabella, Castellón

25 Munduko Kopa Matterhorn Ultraks, Zermatt (Suitza)

**IRAILA**

1 Espainiako Ultra Txap Valle de Tena, Panticosa

1 Munduko Kopa The Rut (Amerikako Estatu Batuak)

14 Munduko Ultra Txap Ben Nevis Ultra (Eskozia)

**URRIA**

13 Munduko Kopa Limone Extreme (Italia)



**EMF egutegi ofiziala: Euskal Herriko Mendi Lasterketak**

**Igor Urionabarrenetxea** aulestiarra eta **Lorena Guinaldo** eibartarrak sendotu egin dira EMF Rankinego postuetan asteburuko emaitzak aintzat hartuta. Biak Intxixu Trail-en parte hartu zuten eta 5. eta 2. Saikatuta ondoz ondo, puntu politak metatu zituzten lidertzak sendotzeko. Gabez Takarraran (Eskoriatza), Intxixu Trail (Oiartzun) eta Lakuntza-Aralar (Lakuntza), jokatu dira asteburuan.

**EMF RANKINGA 2018**

**GIZONEZKOAK**

1. <b>Igor Urionabarrenetxea (Arrolape)</b>	4964
2. Alfonso Castellanos (Zortzietako)	3773
3. Mikeldi Solana (Trail Erraz)	3698
4. <b>Aideko Lopez de Arbina (Bertakoak)</b>	3613
5. <b>Asier Larruzea (Azpigorri)</b>	2996

**EMAKUMEZKOAK**

1. <b>Lorena Guinaldo (Trail Erraz)</b>	3994
2. <b>Vanessa Pelaez (Sestao Alpino)</b>	2999
3. Nerea Amilibia (Sestao Alpino)	2987
4. Ainara Uribarri (Aloña Mendi)	2976
5. <b>Uxoia Irigoyen (Pagoeta)</b>	1998

**EMF TXAPELKETAK 2018**

**APIRILA**

22 Linea [Aloñako Igoera](#) Oñati

**UZTAILA**

13-15 Ultra [Ehun Milak](#) Beasain

**IRAILA**

23 Bertikala [Uharte Arakil-Beriain](#) Uharte-Arakil

**EMF RANKINGA 2018**

**URTARRILA**

13 Linea [Kalamua Barinaga jaitsiera](#) Markina-Xemein

**MARTXOA**

24 Linea [Kolaziño Mendi Eguna](#) Bedia

**APIRILA**

28 Ultra [Nafarroa Xtreme](#) Zubiri

29 Linea [Pagoeta Mendi Lasterketa](#) Zarautz

**EKAINA**

2 Ultra [EH Mendi Erronka](#) Leitza

2 Linea [Galdames Mendi Bira](#) Galdames

9 Linea [Gabez Takarraran](#) Eskoriatza

10 Linea [Intxixu Trail](#) Oiartzun

10 Linea [Lakuntza Aralar](#) Lakuntza

17 Linea [Amurrio Trail](#) Amurrio

17 Linea [T3T](#) Tolosa

24 Linea [Triku Trail](#) Etxarri-Aranatz

**IRAILA**

9 Linea [Axari Trail](#) Idiazabal

15 Bertikala [Intza Ttutturre](#) Intza

**URRIA**

6 Bertikala [Anboto KB](#) Atxondo